

Andres M. Urrutia Badiola

## Akarregik dio... Joxe hil dela!

Aspalditik ikusi gabe nengoen, eta, egia esan, ez berak ez neuk ahalegin handirik ez genuen egin berriro elkartzeko. Bizitzak, jakina, bide desberdinetatik eramaten zaitu eta ustekabeen gerta daiteke aspaldiko adiskideak beste norabide batean ikustea, lanbidea, familia edo osterantzeko arrazoiak direla.

Akarregirekin ere antzeko zerbait. Garai batean puntu-puntu baten ginen biok JAKIN aldizkariaren orrietan gogoetak partekatze gure eta irakurleen artean. Hortik zetorren, etorri ere, Joxe Azurmendiren obra aztertze eta irakurtze ohitura. Eman ere bazka ugaria ematen ziguten haren testu mardulek, gu nor/zer ginen, nondik getozen eta nora gindoazen zehazte aldera.

Horrexegatik ez ninduen batere harritu Akarregiren deiak: «Aizu, adiskidea, Joxe hil da!». Handik bi egunera, Ondarroako Boga-boga tabernako terrazan jarrita, arratsaldeko lehen orduak direla, bi-biok hasi gara hizketan *huntaz eta hartaz*, kafea hartu bitartean. Gaia, azkenean, arlora ekarri eta ideiak trukutzen hasi gara.

Otu zaigu arineketa batean, behinola Azurmendik Orixe zenari egin zion ikerketa arrazoibide eginez, guk ere zerbait esan genezakeela Joxeren alde eta harenak nabarmendu: poeta, filosofoa, saiakera egilea, euskaltzalea eta euskal kulturaren sustatzaile eta suspertzaile nekazina... Hainbat kontu zetozen batera gure buruetara! Aldiz, Joxeren kontra ez genuen deus ere, baina uste genuen gogoeta parekidea izateko tenorea zaindu behar genuela.

## Zer dugu Joxe Azurmendiren alde?

1. Lehendabizikoa eta ez laburrena, Azurmendik jakin zuen euskara, filosofia eta kultura hirukotea egoki uztartzen eta este-

katzen. Filosofia, jakituriaren erro eta oinarri, euskaraz landu zuen, inolako oztoporik gabe eta hizkuntzaren eta gaiaren jabe eta maisu zela. Horrek balio bikoitza du; batetik, gaiarena, eta, bestetik, herri kultura sendotzearena.

2. Azurmendik eta, oro har, Jakin Taldeak abiarazi zuen euskal kulturaren ibilbide luzea, hasi euskara batuan eta buka, oraingoz, Euskal Herriaren jendartearen ikuspegi garaikidean, oraindik abian dago, sarritan inertzia akademiko batzuen gainetik. Erakutsi ere, horrek ezin argiago erakutsi du herritik elikaturiko kultura goi mailakoa izan daitekeela, kontuok behar bezalaxe landuz geroz, unean uneko ideologia guztien gainetik eta azpitik.
3. Hartara, Azurmendik ezin hobeto plazaratu zuen XX. mendean euskal kulturak izan zuen etena, eta hori gainditzeko eginahaletan jardun zuen nekerik gabe. Abiapuntu berriak behar ziren gerra ostean, eta horiek bilbatzen saiatu zen, aurrekoek egingakoa sustraitu esplikatuz eta egungo teknikei ere muzin egin gabe, betiere giza legegari zor zaiona gordez.

Akarregi eta biok luma atsedenean utzi ondoren, kafe kikarari zurrupadaxoa egin eta gure lanaren alde zailenari ekin diogu.

### Ba al dugu deus Joxe Azurmendiren aurka?

Buruak jiraka badarabilzkigu ere, ez gatoz gure arlora. Ezin bilatu Joxeren aldetik giza duintasunari ez dagokion konturik. Gero konturatu gara, haatik, non egon daitekeen koxka. Bistan da gakoa dagoela Joxeren mezua egungo belaunaldi berriei nola transmititu horretan. Joxe klasiko bihurtuko ote? Bera oso kritikoa zen maila horretan Orixerekin. Interekoa izango da Joxeren lana gazteentzat, akademia hutsetik harago?

Euskararen kultura egiteko moldeak franko aldatu dira azken urteetan. Instituzionalizazio akademikoaren prozesua gero eta nabarmenagoa da. Ostera, aski al da hori euskal kulturaren biziraupenerako? Akarregi eta biok galdera ikurra jarri diogu horri, eta, kafearen azken eupada egin ondoren, agur esan diogu elkarri. Ondarroako *Alamedan* azal kolore desberdinetako neskato-mutiko batzuk euskaraz ari dira jolasean. Ezagutuko ote dute horiek Joxeren mezua?

Anartean Joxe hil da, hil zaigu, eta, filosofo onari dagozkion galde-  
ra horientzako erantzun batzuk utzi badizkigu ere, beste batzuk guk eman behar!